



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

144. INFORMAZIO BULETINA

> 2019ko Maiatza



Fondo Europeo de
Desarrollo Regional (FEDER)
"Una manera de hacer Europa"

Europar Batasuna
Unión Europea

Eskualde Garapenerako
Europar Funtza (EGEF)
"Europa egiteko modu bat"

GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

> Errenteriak, Elgoibarrek, Gabiriak eta Getariak Wifi4EU europar programaren laguntza lortu dute Wifi publiko eta dohakoia eskaini ahal izateko

Programa honen sortzaile den Europako Batzordeak maiatzean argitaratutako zerrendako 4 udal gipuzkoarrak dira Errenteria, Elgoibar, Gabiria eta Getaria. 3.400 udalerrik lortu dute 15.000 euroko laguntza, gunee eta eraikin publikoetan dohako wifia ezartzeko (bai osasun edo kulturako guneeetan, hirietako gunee irekietan...), apirilaren 4 eta 5ean eskaera egin zuten 10.000 europar udalen artean.

Dohako sare hauek ez dute publiziterik izango, eta ez diote erabiltzaileari datuak eskatuko. Onuradun izan diren guneeek bete behar zuten aurretik antzekorik ez izatearen baldintza; baita ere, sistema indarrean mantendu behar izango dute 3 urtez gutxienez, ahal den edukiera handienarekin eta gutxienez 30 MB eskainiz.

(informazio +)



> Europako, udaletako eta foru hauteskunderen jarraipen eguneratua, denbora errealekoa, Foru Aldundiaren web orrian

Foru erakundeak sakonki berritu du 'hauteskundeak.gipuzkoa.eus' web orria, eduki gehiagorekin eta sarbide errazagoekin.

Foru Aldundiak, maiatzaren 24, hauteskundeak.gipuzkoa.eus web orria aurkeztu zuen, zeinaren bitartez herritarrek 26ko udal, foru eta Europako hauteskunderen jarraipen zehatz eta sakon bat egin ahal izan baitute. Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko diputatu den Imanol Lasak azaldu duenez, "eraldaketa sakon bat" egin da webgunean, eta pasatu da "eredu estatiko batetik eredu askoz intuitiboago batera, eduki gehiagokora eta sarbide errazagokora", 'business intelligence' tresnan oinarrituta, zeinari esker "gipuzkoar guztiek bertatik eskuratu ahal izango baitute hauteskunderen lotuta dagoen interes publikoko informazio guztia, eta hori funtsezkoa da gardentasunaren ikuspuntutik begiratuta".

(informazio +)



KOHESIO POLITIKA

> “Non ikusten duzu Europa Euskadin?” Argazki lehiaketaren zortzigarren edizioaren deialdia 14 eta 25 urte bitarteko gazteentzat

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren ekimenaren bidez, Europa hurbildu nahi zaie gazteei eta, horretarako, argazki batean islatu nola ikusten duten Europak laguntzen duela beren ingurunearen garapenean.

Lanak maiatzaren 27tik ekainaren 23ra aurkeztu ahal dira.

Gobernu Kontseiluak, maiatzaren 28an, Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren agindua onetsi du; horren bidez, “Non ikusten duzu Europa Euskadin?” argazki-lehiaketaren zortzigarren edizioaren deialdia egin da.

Lehiaketa Facebook bidez izango da, bai eta Twitter eta Instagram plataformen bidez ere; bertan, interesa duten gazteek beren argazkiak argitaratu ahal izango dituzte eta Europaren inguruan duten ikuspegia modu sortzaileagoan partekatu.

Helburua da EAEko gazteei EGEF ezagutaraztea da, autonomia-erkidego honen lurraldearen garapen ekonomikoari bultzada ematen dioten jarduera inbertitzaileak, proiektuak eta ekimenak finantzatzeko dituen funtsa alegia; eskualde-garapenerako partaidetzaren berri ematea, Europarekin lotura duten esparruen gaineko interesa piztea eta, horretarako, hurbileko hizkuntza teknologikoa erabiltzea, gizarte-sareak Europaren zabalkunde-baliabide berri gisa erabiltzea, eta abar.

Argazkiek Euskadiren barruan EGEFen edo Europako beste laguntza batzuen finantzaketa jaso duten ekimen edo proiektuak erakutsi beharko dituzte.

Lanak www.facebook.com/feder.ejgv.euskadi.eus bidez aurkeztuko dira, 2019ko maiatzaren 27tik ekainaren 23ra, biak barne.

Hiru sari emango dira: “Reflex” argazki-kamera, GO PRO HERO kamera digitala eta E-Booka.

Lehiaketaren gaineko argibideak eta oinarriak:

(informazio +) (FB +)



> Zaporeak eta Aita Mari, EB-era heltzeko lur eta Itsaso bideetan errefuxiatu eta migratzaileei laguntzen dihardutenak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 360.000 euroko laguntzen onuradun izan diren proiektuen artean daude.

Lankidetzarako Zuzendaritzak 360.000 euro xedatu ditu aurten larrialdiko laguntzetarako. Aurten foru laguntza jaso duten hamar proiektuetatik, bederatzik lotura zuzena dute errefuxiatuek munduko leku ezberdinetan bizi duten dramarekin (Gaza, itsaso Mediterraneo, Kolonbia eta Venezuela, saharaiuen kanpamentuak, Cisjordania, Lesbos). Ondoren zehazten diren gobernu kanpoko erakundeek hamar proiektu diru laguntza jaso dute: Solidaridad Internacional, UNRWA, UNICEF, Itsas Laguntza Humanitarioa elkarteak (Maydayteraneo-Aita Mari), Mundubat Fundazioa, Alboan Fundazioa, Remar Gipuzkoa, Sodepaz, Emigrad@s sin Fronteras eta Zaporeak.

Nazio Batuen Erakundearen Errefuxiatuentzako Erakundeak (ACNUR) dituen kopuru ofizialen arabera, munduan 65 milioitik gora errefuxiatu eta desplazatu daude. Asian, Afrikan, Europan, Latinoamerikan eta Ipar Amerikan gertatzen den fenomeno bat da. Batzuk gerratik ihesean doaz eta beste batzuk aukera berri baten bila. "XXI. mendeko drama nagusietako bat da, eta, ikuspegi moraletik eta humanitariotik begiratuta, hausnarketa sakon bat egitera behartzen gaitu mundu hau aldatzeko eta bermatzeko oinarritzko giza eskubideak eta duintasuna pertsona guztiengana iristen direla", adierazi du Denis Itxasok.

"Gipuzkoaren kasu zehatzean, harrotasunez esan dezakegu Gipuzkoa beti errefuxiatuen alde mobilizatu dela, bakarka nahiz maila kolektiboan, GKEn eta elkarte ezberdinen bitartez, edo berez antolatu diren ekimen ezberdinen bitartez".

Itxasok elkarteek eta boluntarioek egiten duten funtsezko lan hori goraiatu eta eskertu du.

Larrialdiko laguntzen xedea da ekintza humanitarioko proiektuak burutzea eta natura hondamendien edo gatazka armatuaren ondoriozko larrialdiko premiei erantzutea. Kasu honetan, bi motatako proiektuak onartu dira:

Larrialdiko laguntza proiektuak, hondamendiek kaltetutakoen berehalako premiei erantzuteko, beren biziraupena bermatzeko eta sufrimendua arintzeko oinarritzko ondasunez eta zerbitzuz hornitzea helburu dutenak (berotzeko materiala, aterpea, edateko ura, elikagaiak, osasun laguntza eta haur hezkuntza).

Ekintza humanitarioko proiektuak, zentzu zabalagoan hartuta, hondamendien beste fase batzuei erantzutea xede dutenak, eta krisia piztu aurreko egoerara itzultzea helburu dutenak.

[\(+ información\)](#)



> Alerion eta Lortek-en Durable proiektua, bere dron aurreratuengatik ezaguna egiten ari dena, EBaren EGEF funtsaren bidez finantzatua dago, Atlantiar ardatzeko Interreg programaren barne.

Alerion Donostiako enpresa gazte eta berritzailea aurrera doa Europa mailan nabarmentzen, Durable izeneko proiektuagatik, Ordiziako Lortek kooperatibarekin eta Euskadiko Energia Klusterrarekin batera garatutakoa. Bere dronak energia berriztagarrien instalakuntzen behaketarako balio dute, bai haize zein eguzki energiakoetan.

Proiekturako europar laguntzen 3,9 milioi euroak Interreg programaren bidez datoz, Atlantiar ardatzeko herrialdeen arteko elkarlanekoa, mugaz gaindiko honelako programek batik bat EGEF funtsatik hartzen dutelarik beren finantzaketa, Europar Batzordearen Eskualde Garapenerako Funtsatik.

Atlantiar ardatzekoak dira, izan ere, gipuzkoar enpresa hauen ikerketa kideak, teknologia gune eta unibertsitateak, Bidart (Iparralde), Sevilla, Dublin, Bristol eta Europako mendebaldeko beste inguruetakoa. Alerion-ek Europako Espazio Ajentziaren laguntzak izan zituen bere sorkuntza garaian, baita ere.

Dron hauek errota eoliko handietara hurbiltzeko gai dira, baita itsaso zabalean ere, eta bere egoera eta jardueraren datuak hartzeko. Alerion eta Lortek enpresek iraupen energetikoa eta ahalmen behatzaileak dronetan bermatzea lortu dute.

(informazio +)



EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> **Gipuzkoako 33 enpresek jaso dituzte Europako ETEentzako Tresnaren laguntzak, Estatu kopuruaren %6,2**

33 enpresa gipuzkoar izan dira onuradun ETE Tresnaren deialdietan, bere ibilbidearen 5 urteetan zehar, Europako Batzordearen Berrikuntza Kontseiluak sareko bere datu gunean argitaratzen duen azken informazioaren arabera. Horizon 2020 esparruaren barne garatu da finantzaketa tresna hau, enpresa txiki eta ertainen, ETEen, eta beren egitasmo berritzaileen mesederako. Programarako proiektuak bakarka edo enpresa konsortzioen bidez aurkeztu ahal dira eta Berrikuntzaren prozesu osoan zehar jasotzen dute finantzaketa, 3 mailako dirulaguntza ibilbide batekin: kontzeptua eta bideragarritasun balorapena (1. fasea), frogatzea eta merkatal erreplikazioa (2. fasea) eta merkaturatzea (3 fasea)

2014ko hastapenetik 2019ko ekainera arte onuradun izan diren 33 enpresetatik, 23k lortu dute finantzaketa 1. Faserako, beste 17k 2.erako; beraz, 7k eskuratu dute bi fasetarako.

Gipuzkoako enpresa hauek lortu duten dirulaguntza 19,3 milioikoa izan da esandako epealdi osoan zehar: Estatuaren kopuruaren barne %6,2 dira.

Euskadi osoan 64 izan dira onuradunak, eta dirulaguntza 29,64 milioikoa. Beraz, Euskadirako funtsen ia bi heren heldu dira Gipuzkoara, eta ia enpresen erdia gipuzkoarra izan da.

Bestalde, Espainia ETE Tresnaren barne onuradun gehien izan dituen Estatuak izan da 819 enprekin, eta 312 milioiko inbertsioa erakarrita bost urteen buruan. Hurrengo herrialdeak enpresa kopuruari dagokionean, Italia (637), Erresuma Batua (434), Alemania (319) eta Frantzia (280) izan dira.

(2019ko ekainaren 10ean eskuragarri diren datuak).

(informazio +)

(>>datu biltegia)



> **Ingurumeneko Foru Departamentuak eta EHUK Kontxako Badiako urak aztertuko dituzte, plastiko garbiketarako bultzatu duen LEMA egitasmoaren barne, EBaren LIFE ingurumen programakoa**

Gaur egun, zortzi milioi tona plastiko iristen dira itsasora, eta kalte handiak sortzen dituzte faunan eta itsas hondoetan.

Ikerketa lerro bat ireki da Gipuzkoako kostaldean mikroplastikoen presentzia kuantifikatzeko. Horretarako, Donostiako Badiaren urak eta kostaldeko beste bi eremu aztertuko dira Aquariumarekin lankidetzan.

Ingurumeneko diputatuak, José Ignacio Asensiok, gogorarazi du plastikoen bidezko itsas kutsadura dela ingurumen arazo nagusienetako bat, eta bere Departamentua LIFE LEMA proiektua zuzentzen ari dela, datozen hiru urteetan 100 milioi tona plastiko Gipuzkoako kostaldeetan biltzera bideratutakoa. Asensioren esanetan, abian jarritako ikerketa lerro berria aurrerago doa; izan ere, «funtsezkoa da gure itsas hondoak zaintzea, eta gure itsasertzean plastikoen presentzia ezagutzea hondakin horien metaketari aurre egiteko modu eraginkorra da».

José Ignacio Asensio: «Funtsezkoa da gure itsas hondoak zaintzea, eta gure itsasertzean plastikoen presentzia ezagutzea hondakin horien metaketari aurre egiteko modu eraginkorra da».

XXI. mendearen ingurumen erronkarik nagusienetako bat da itsasoak babestea. Zehazki, uste da urtero zortzi milioi tona plastiko botatzen direla itsasora, kalte handiak eraginez faunan, floran eta bentosean (hau da, hondoetako ekosisteman); baina, nolanahi ere, kalte horiek areagotu egiten dira plastikoak duen egonkortasun handiagatik, 100 urte inguru behar baitu mineralizatzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko Departamentuak, Euskal Herriko Unibertsitateko Materialak + Teknologiak taldearen lankidetzarekin, abian jarri duen ikerketa lerroak helburu hau du: itsaso ur azaleko eta hondartzetako mikroplastikoen edukiari eta horien karakterizazioari buruzko ikerketa egitea.

(informazio +)



> Danobatek Alemaniako merkatuaren aldeko apustua indartu du

Konpainia gipuzkoarrak Alemaniakoak diren edo Europa erdialdeko herrialde horrekin lotura estuak dituzten 90 enpresa ingururen ordezkariak bildu zituen bere instalazioetan antolatutako bileran.

Makina erremintan eta ekoizpen sistemetan espezializatuta dagoen Danobat euskal fabrikatzaileak Zirkulu Hispano-Alemaniarraren 33. edizioa antolatu zuen maiatzaren azken egunetan, bere instalazioetan. Enpresen arteko topaketa horrek konpainiak Alemaniako merkatuaren alde egin duen apustua indartzen lagundu du.

Ekitaldian Alemaniakoak diren edo herrialde horrekin lotura estuak dituzten 90 enpresa ingururen ordezkariak parte hartu zuten, horixe baita Elgoibarko konpainiak Europan duen helmuga komertzial nagusia.

(informazio +)



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> **Ekonomiaz-Euskal Ekonomia Aldizkariaren 95. zenbakiaren aurkezpena:**

Gai nagusia: "Enpresa ertainaren nazioartekotzea eta lidergoa munduko merkatuetan"

(informazio +)



EUROPAKO DEIALDIAK

> 2019 LIFE Programa – Laguntza teknikoa

Laguntza teknikoko lanak 4 esparruetan (“ingurumena”, “natura”, “egokitzea” eta “arintzea”)

[\(Informazio + \[en\]\)](#)

> EaSI 2019 – Europar Batzordearen Enplegu eta Gizarte Berrikuntza Programa

Mugaz gaindiko enplegua bideratzeko zerbitzuetarako laguntzak, TMSaren barne. (Zuzendutako Mugikortasun Eskema, EaSIren EURES lanbide mugikortasun sarearen tresna).

[\(informazio +\)](#)

EURES sarearen lankide diren elkarte edo erakundeentzako laguntzak.

[\(informazio +\)](#)

EaSIren Progress ardatza: administrazio publikoen elkarlanentzako laguntzak, mugaz gaindiko lanbide mugikortasunerako.

[\(informazio +\)](#)

> CEF Energy

Europako azpiegituren konexio tresnaren (CEFen) Energia ardatza: laguntza deialdia

[\(Informazio +\)](#)



> “Eskubideak, berdintasuna eta herritartasuna” Programa

Eskubide babeserako 8 gaietarako laguntza deialdia. Umeena, jenero eskubideena, hauteskunde partaidetzakoa, datu pertsonalen babesekoa, edo gutxiengoaren errespeturakoa.

(Informazio +)

> Sarraskietarako boluntaritza

EBaren bolondres hornikuntza sarraski larrialdietarako laguntzarako. Ikasketa praktika hautagarriak, eta sareen bidezko boluntaritza aukeren kudeaketa lana

(Informazio +)

> “EB osoan europar kultur telebistaren edukia azpigitulatzeari”, saiakera ekintza

EB osorako kultur eduki azpigitulatuaren zabalkuntzazko saiakera ekintzetarako laguntzak. Hizkuntza mugak gainditzeko

(Informazio +)

“EUROPAKO FUNTSAK GIPUZKOAN” webgunea